





Espainiako historia

- BATXILERGOA
- LANBIDE HEZIKETA
- GOI MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOAK

Azterketa

Kalifikazio eta zuzenketa irizpideak



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKAIN TASUN
CAMPUSA

CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL



Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.

Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.

Zuzenketa eta kalifikazio irizpide espezifikoak:

1. Gaia: 5 puntu. Gaiaren kalifikazioa irizpide hauen arabera egingo da:
 - a. Galdetzen denari egokitzeko gaitasuna: 1 p.
 - b. Kontzeptuak eta hiztegi espezifikoak ondo erabiltzea: 1 p.
 - c. Gaia bere testuinguruan jartzea: 3 p.
2. Testu-iruzkina: 5 puntu. Testuaren kalifikazioa irizpide hauen arabera egingo da:
 - a. Testuaren kokapena (testu mota, egilea, jasotzaileak, garaia): 0,5 p.
 - b. Testuaren analisia: testuaren oinarritzko ideiak nabarmentzea: 1,5 p.
 - c. Testuinguruan jartzea: testua bere prozesu historikoan ezartzea: 2,5 p.
 - d. Testuaren garrantzia: kokatzen den aldi historikoa ulertzeko testu horrek duen garrantzia adieraztea: 0,5 p.

Este examen tiene dos opciones. Debes contestar a una de ellas.

No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.

Criterios específicos de corrección y calificación:

1. Tema: 5 puntos. La calificación del tema se ajustará a los siguientes criterios:
 - a. Capacidad para ajustarse a lo que se pregunta: 1 p.
 - b. Uso adecuado de los conceptos y vocabulario específico: 1 p.
 - c. Contextualización del tema: 3 p.
2. Comentario de texto: 5 puntos. La calificación del texto se ajustará a los siguientes criterios :
 - a. Localización del texto (tipo de texto, autor, destinatarios, época): 0,5 p.
 - b. Análisis del texto: resalta las ideas fundamentales del texto: 1,5 p.
 - c. Contextualización: encuadra el texto en su proceso histórico: 2,5 p.
 - d. Importancia del texto: destaca su importancia para comprender el período histórico en el que está inscrito: 0,5 p.



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2013ko EKAINA

ESPAINIAKO HISTORIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JUNIO 2013

HISTORIA DE ESPAÑA

A AUKERA

GAIA: ESTATU LIBERALAREN ERAIKUNTZA ETA FINKAPENA (1834-1874)

TESTU-IRUZKINA: EUSKAL HERRIKO AUTONOMIA ESTATUTUA (1979-12-18)

Juan Carlos I.a Espainiako erregeak honako hau ikusi eta ulertzen duten guztiei honako hau jakinarazten die: Gorte Nagusiek organiko izaerarekin onartu dutela honako lege hau eta nik berretsi egiten dudala:

1. art. Euskal Herria, bere naziotasunaren adierazpen gisa eta bere autogobernua lortzeko, Autonomia Erkidego gisa eratu da espainiar estatuaren barruan, Euskadi edo Euskal Herria izenarekin, eta Konstituzioarekin eta bere oinarritzko erakunde araua den Estatutu honekin bat etorritz.

2. art. 1. Arabak, Gipuzkoak eta Bizkaiak, eta baita Nafarroak ere, Euskal Autonomia Erkidegoko kide izateko eskubidea dute.

2. Euskal Autonomia Erkidegoa Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia probintzien gaur egungo mugekin bat datozen Lurralde Historikoen osatuko dute eta baita Nafarroak ere, bertan sartzea erabakitzen badu (...).

3. art. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Historiko bakoitzak bere antolamenduari eta autogobernurako erakunde pribatiboei eutsi diezaiekete edo, bere kasuan, berrezarri eta eguneratu ditzakete.

6. art. 1. Euskara Euskal Herriaren hizkuntza propioa da eta, gaztelania bezala, hizkuntza ofiziala izango da Euskadin. Gainera, Euskadiko biztanle guztiek dute bi hizkuntzak ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea.

17. art. 1. (...) Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeei dagokie (...) lurralde autonomoaren barruan pertsonak eta ondasunak babesteko eta ordena publikorako Polizia autonomoaren erregimena antolatzea. Estatuko Segurtasun Indar eta Gorputzak arduratuko dira Autonomia Erkidegoaz kanpoko eta gaindiko polizia zerbitzuez.

XEDAPEN GEHIGARRIA. Estatutu honetan xedatutako autonomia erregimena onartzeak ez du esan nahi Euskal Herriak uko egiten dienik historiaren kariaz legezkoen eskubideei, antolamendu juridikoak xedatutakoaren arabera eguneratu ahal izango direnei.

Madrilgo Errege Jauregian, mila bederatziehun eta hirurogeita hemeretzi abenduaren hemezortzian.

Adolfo Suarez Gonzalez gobernuburua.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2013ko EKAINA

ESPAINIAKO HISTORIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JUNIO 2013

HISTORIA DE ESPAÑA

B AUKERA

GAIA: BIGARREN ERREPUBLIKA: 1931KO KONSTITUZIOA ETA ERREFORMAK (1931-1936)

TESTU-IRUZKINA: VICENTE BLASCO IBÁÑEZEN *EL INTRUSO* ELEBERRIAREN PASARTEA (1904)

“Peoien etxea” zen, meatze-mendietako aterpetxe ziztrina, eta jornalariak han bizi ziren, pilatuta. (...)

Arestik zulo hartan igarotako gauetan pentsatu zuen, tristuraz beteta. Peoiak abailduta iristen ziren, egun osoa ematen baitzuten barrenatzeko makinek ateratako blokeak apurtzen, bagonetak harriztarrez betetzen, mea-biltegiara eramaten eta mea-biltegitik ekartzen. Babarrunak, patatak eta bakailao edo urdail pixka bat afalduta, gelaxka hartan egiten zuten lo, izerdiz edo euriz bustitako jantziak soinean zituztela; botak bakarrik erantzten zituzten; jaka ere bai, batzuetan. Eskuez uki zitekeen sabai haren azpian, airea ez zen mugitzen, eta ordu gutxi batzuk igaro ostean, ezin arnastuzkoa bilakatzen zen, hainbeste gorputzen lurrunak loditua eta zikinkeria-usainez josia. Kamainen tolesetan, egurrezko junturetan nahiz sabaiko zuloetan bizi ziren bizkarroiak ehizara ateratzen ziren, beroak suspertuta, eta nekeak eraginda lozorroan zeuden gorputz bizigabeekin anker jokatzen zuten, iluntasunaren babesean. Gau ekaizsuetan, zirrikitu eta arrailetatik sartu eta batetik bestera ibiltzen zen haizea, etxezuloa beheara botatzeko zorian. Halakoetan, gorputz jantzi eta kirasdunak elkarren bila aritzen ziren, beroa lortu nahian. Izerdiak elkartu egiten ziren eta arnasak nahasi; zikinkeria anaiartekoa zen. (...)

Harrobia zen langile asaldatzaileen etsairik gogorrena. Lurpeko meazuloetako arriskuei aurre egiteko, maisutasuna beharrezkoa zen, hortaz, ez zen erraza hango langileen ordezkioak bilatzea, irakatsi egin behar baitzitzairen ofizioa. Baina Enkarterri emankorretan burdinak mendiak osatzen ditu: ustiaketa kanpoaldean egiten da; harria atera, jaso eta eraman, ez da besterik egin behar; zulatu eta apurtu, ereiteko lurretan bezalaxe. Goseak bultzatuta, etengabe iristen ziren peoiak, multzo handitan, eta gehiegikerien aurka protestaka lanpostua utzi zutenak ordezkutzen zituzten, ahaleginik egin gabe. Gizonen etorrera etengabea eteten ez bazen, Enkarterrietako langileak behin eta berriz ordezkutzen bazituzten, zaila zen lan hark merezi zituen eskubideak eskuratzea.

Vicente Blasco Ibáñez, *El intruso*, Valentzia, 1904.



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

ESPAINIAKO HISTORIA / HISTORIA DE ESPAÑA

Ebaluazio-irizpideak

1. Espainiaren historia eta euskal historia garaikidea osatzen duten prozesu azpimarragarrienak ezagutzea, eta gertaera politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalen arteko erlazioak identifikatzea.
2. Prozesu historikoetan gauza batzuk zergatik aldatzen diren eta beste batzuek zergatik irauten duten azaltzen duten faktoreak ulertzea, eta gizarte-gertaerei lotutako kausalitate-aniztasunaz ohartzea.
3. Oinarrizko kontzeptu eta termino historikoak ulertzea eta egokiro erabiltzea.
4. Ikasgaiaren edukiak egokitasunez adieraztea eta jakinaraztea.

Zuzentzeko eta kalifikatzeko irizpide espezifikoak

1. Gaiak nahiz testu-iruzkinak gehienez 5 puntu balioko dute; beraz, azken nota 0 eta 10 punturen artean egongo da.
2. Gaiaren kalifikazioa irizpide hauen arabera egingo da:
 - a. Galdetzen denari egokitzeko gaitasuna: 1 p.
 - b. Kontzeptu eta hiztegi espezifikoak ondo erabiltzea: 1 p.
 - c. Gaia bere testuinguruan jartzea (beste gertakizun sinkroniko batzuekin erlazionatzea): 3 p.
3. Testu-iruzkinerako
 - a. Testuaren kokapena (testu mota, egilea, jasotzaileak, garaia): 0,5 p.
 - b. Testuaren analisia: testuaren oinarrizko ideiak nabarmentzea: 1,5 p.
 - c. Testuinguruan jartzea: testua bere prozesu historikoan ezartzea: 2,5 p.
 - d. Testuaren garrantzia: kokatzen den aldi historikoa ulertzeko, testu horrek duen garrantzia adieraztea: 0,5 p.

Criterios de evaluación

1. Conocer los procesos más relevantes que configuran la historia española y vasca contemporánea, identificando las interrelaciones entre hechos políticos, económicos, sociales y culturales.
2. Comprender los factores que explican los cambios y las permanencias que se dan en el proceso histórico, reconociendo la causalidad múltiple que comportan los hechos sociales.
3. Comprender y utilizar adecuadamente los conceptos y términos históricos básicos.
4. Expresar y comunicar los contenidos de la materia de forma adecuada.

Criterios específicos de corrección y calificación

1. Tanto el tema como el comentario de texto se puntuará hasta un máximo de cinco puntos, con lo que la nota final podrá oscilar entre 0 y 10 puntos.
2. La calificación del tema se ajustará a los siguientes criterios:
 - a. Capacidad para ajustarse a lo que se pregunta: 1 p.
 - b. Uso adecuado de los conceptos y vocabulario específico: 1 p.
 - c. Contextualización del tema (relación con otros acontecimientos sincrónicos): 3 p.
3. Para el comentario de texto
 - a. Localización del texto (tipo de texto, autor, destinatarios, época): 0,5 p.
 - b. Análisis del texto: resalta las ideas fundamentales del texto: 1,5 p.
 - c. Contextualización: encuadra el texto en su proceso histórico: 2,5 p.
 - d. Importancia del texto: destaca su importancia para comprender el período histórico en el que está inscrito: 0,5 p.